

ELKARRIZKETA: LOURDES VIGUERA, JOSTUNA

Arrasate

P R E S S

2000.eko
abenduaren 5a
520. zenb.

Musikaren hiriburua

Akordeoi Lehiaketak
jokatuko dira Mondragoen

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10-1 ☎ 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ☎ 943 77 05 57

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ☎ 943 77 03 96

GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga,10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D' (Kiroldegian ere bai) ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOako odontologia espezialitateen zentrua, Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ☎ 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezfio,6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezfio, 2 ☎ 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 (Mobila) ☎ 659 58 66 89

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga,10 ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16

TRAUMATOLOGIA

- ARSENIO DIEGO GARCIA (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

arrasate pressen

Jokin Zaitegi omenduz

■ 44. zenb.
(1989.12.15)



Jokin Zaitegi Arrasateko seme kutun izendatu zuen bere garaian udalak. Baina, 1989ko abenduaren 8ko

osoko bilkuran Roneoko etxe berrietan egitekoak ziren plazari Jokin Zaitegi izena jartzea erabaki zuten. Horrez gain, Monterron jauregiko liburutegiari ere bere izena ipini zioten.

Akordeoilari onenak

■ 44. zenb.
(1989.12.15)

Abenduaren 8, 9 eta 10ean Gipuzkoako X. akordeoi lehiaketa jokatu zen. 11 urte arteko taldean lehenengo saria Inigo Aizpioleak eraman zuen. B taldean, 12-15 urte bitartean, Idoia Otegik, eta D taldean, 16 urtetik gorakoenetan, Aitor Zurrundarenak.

Azoka plaza ixteko erabakia

■ 44. zenb.
(1989.12.15)



1990eko abenduaren 31n udalak bere garaian 20 urterako emandako saltokibaimenen epea

bukatuko zela eta, azoka plaza itxiko zela iragarri zuen. Hala ere, 1991tik aurrera aire zabaleko azoka egiteko asmoa agertu zuen udalak.

Kirolari onenak

■ 44. zenb.
(1989.12.15)



88-89 AUKEA sariak Jose Antonio Gay korrikalariaren dako eta Arrasateko errugbi taldearen

rendako izango zirela erabaki zuen AUKEAK.

besteek esana



Mondragoeko herriak, bere seme Sebero Altube goratu nahirik, plaza bat eskaini dio. Eta idazkunea honela ezarri diote: Sebero Altube enparantza. Hori ikusi nuenean, esan ere egin nuen neure kolkorako: «Hau dek hau! Gizona eta gizonaren irakaspenak goratu nahi diren unean berean, traizioa egiten zaie...».

Euskaldun aruntarentzat oso ezagunak dira plaza hitzetik sortzen diren beste hauek ere: *plazaratu, plaza-gizon, plazatxo, Plazaola*, etab. Orduan, gurea den hitza zergatik bota behar dugu kanpora eta horren lekuan *enparantza* sartu? (...) Bistan da, gaztelaniazko hitzetik ihes egin nahiak egiten du hori (...) Baina, gure hizkuntzako auziak erabakitzeke, erdarari begiratu behar badiogu, eta ez euskarari, ederki gaude gu!».

Aita Luis Villasante
EUSKARAREN AUZIAZ
(1988)



ARRO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARRO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo Deogracias. **Kazetariak:** Ubane Madera eta Leire Kortabarría. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantza Lagunilla. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Ane Beresbar. (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua:** Maddi Trubuelo. **Astoburuetako berriemakileak:** Lorea Agriano. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franko kontzertatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trubuelo.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundien laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

aurkibidea

- Lehen begiratu a 3
- Inkesta 4
- Asteko hitzorduak 5
- Astearren erreposoa 6
- Orain eta hemen 7
- Txutxumtxuak 8
- Aurrez aurre 10/11
- Kirolak jokoan 12/13
- Zaldibar areto futbolak 13
- Kulturaren txokoa 15/16
- Uhinetan barrena 17
- Foto zaharra 18

Lourdes Viguera



Zer irudituko litzaizuke Konstituzio eguna laneguna izango balitz?

22 urte beteko ditu Espainiako Konstituzioak abenduaren 6an



Manuel Oliva
(65 urte)
Erretiratua

Erabat berdín zait; bakoitzak nahi duena egin dezala.



Mari Badiola
(62 urte)
Erretiratua

Nik nahiago nuke laneguna balitz.



Ludivina Perez
(54 urte)
Etxekoandrea

Ondo irudituko litzaidake; izan ere, nik ez dut ezer laneguna izatearen kontra, baina ezta jaieguna izatearen kontra ere.



Mila Sebastian
(28 urte)
Langilea

Ni lanera joango nintzateke, ez zait egun hori gustatzen eta.




Ana Peñalba
(36 urte)
Langilea

Ni oso-oso lotuta nago nire lanean, beraz, uste dut gero eta jaiegun gehiago izan, hobeto dela. Nire ustez, lan egiteko bizi gara.



Iker Agirrebengoa
(30 urte)
Langilea

Nik aurten lan egin behar dut, beraz...



Geminiano Manchado
(63 urte)
Erretiratua

Nahiago dut jaieguna izatea. Erretiratuta nago, baina jaiegunak gustatzen zaizkit.



Haritz Elortza
(16 urte)
Ikaslea

Laneguna izatea ondo iruditzen zait, baina eskolara joan beharra... ikusi egin beharko genuke! Eskolan proposatu digute, baina ez da atera.

Monte taberna

Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

GANBARA

- Enmarkazioak
- Laminak
- Estiloko markoak
- Arte lanak (margo lanak)

Arte ederretako materialean %25-30eko deskontua

Erguin, 2 behea • Tel.: 943 77 12 37

Gambrinus garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizenziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

ordutegi bereziak

Abenduaren 6an eta 8an ondoko ordutegiak izango dituzte herriko hainbat zerbitzuek: Musakolako kiroldegia 8:30etan zabalduko da, eta igerilekuak 9:00etan; hauek biak 13:30etan itxiko

dira. Monterron itxita egongo da 6an eta 8an, baina 7an zabalik izango da. Sexologia eta Gazte zerbitzuek jai izango dute 6tik 8ra, eta baita Iturripeko kiroldegia ere.

erakusleihu lehiaketa

Santamasetako erakusleihu lehiaketarako deialdia egin du udalak. Abenduaren 15a baino lehen egin beharko dute izen-ematea parte hartu nahi duten dendek. Izena emateko, deitu 943 79 09 00ra.



akordeoi lehiaketa

Ondoko orduetan izango dira nazioarteko lehiaketako emanaldiak: abenduaren 6an, 10:00etan eta 16:00etan; 7an, 8:15etan eta 15:30ean; eta 8an, 10:00etan eta 16:00etan. Gainera, beste bi kontzertu

prestatu dituzte antolatzaileek: Agintza taldeak Hotel Mondragonen joko du abenduaren 6an, 23:00etan; eta J.J. Mendizabalek eta Xabier Zubeldiak Kajoi tabernan joko dute 7an, 00:00etan.

san nikolas

Abenduaren 6an, San Nikolas eguna dela eta, boloa egingo da herriko plazan, 12:00etan eta 12:30ean.

Abenduan, goizeko 9:30etik 12:00etara, zabalik izango da San Juan Parrokia, abenduko otoitzak egiteko.

abenduko otoitzak

erakusketak

Abenduan Jose Reyes Ramos margolaria- ren erakusketa izango da Toki-Eder kafetegian. Bestalde, Asun Baltzolaren

ilustrazioa Ezagutu erakusketa izango da ikusgai Monterronen, abenduaren 11tik urtarilaren 5a arte.

ZERBITZUAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
 Iguialtorioa 943 71 26 91
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 943 79 39 00
 (emakumeak) 943 79 44 11
 Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak
 SOS Deiak 112
 Gurutze Gorria 943 76 55 76
 DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak
 Guardiako medikua 943 46 11 11
 Astelehenetik
 larunbatera 17:00etatik 08:30era
 asteburu eta
 jai egunetan egun osoa
 Arrasate
 Astelehenetik
 ostiralera 08:00etatik 17:00etara
 Larunbatetan 09:00etatik 17:00etara
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria 943 03 52 50
 • Espezialitateak 943 03 53 11
 • Ikuskatzailea 943 03 52 52
 • Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
 Aretxabaleta 943 79 74 58
 Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziazkiak 943 45 87 44

Ertzaintza
 Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 943 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
 Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 943 79 78 44
 943 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 943 79 12 22
 PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentroak
 Iturbide Egoitza 943 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburategia
 Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia

Larunbata	Igandea
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Larunbata	Igandea
19:00 (elebiduna)	10:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
Igandea	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Larunbata	Igandea
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Larunbata	Igandea
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Larunbata	Igandea
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jai egun bezpera eta larunbata	Igandea
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

943 344 494

www.deika.com

- TELEF. FINKOA
- TELEF. MUGIKORRA
- AHOLKULARITZA INFORMATIKOA
- INTERNET
- TELEFONOGUNEAK

DEIKA telekom

ERRENTERIA
 Morrongilleta, 1
 M. Etxebarria, 1

BEASAIN
 Nafarroa Hirib., 25

URRETxu
 Arelzaga, 1

BANATZAILE OFIZIALA: **Euskaltel**

Etan orain Arrasaten ere bai:

ARRASATE
 Kontzeziño, 12

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Asteazkena, 6
 • Azkoaga, Ferrerias

Osteguna, 7
 • Azkoaga, Iturriotz

Ostirala, 8
 • Corcuera, Maisu Aranbarri

Larunbata, 9
 • Irizar, Erguin

Igandea, 10
 • Amezua, Santamaina

Astelehena, 11
 • Zabala, Zarugalde

Asteartea, 12
 • Ruiz, Maala

Asteazkena, 13
 • Morales, Araba Etorbidea

Osteguna, 14
 • Azkoaga, Ferrerias

USTEAK USTE

Birziklatutako punkak

Pedro Guridiren omenezko kontzertua zela eta, jende multzo ederra elkartzu zen Musakolako kiroldegian. Bueno, aitzakia omenaldia zen, baina garai bateko punk taldeak entzutea izan zen gehienen asmoa. RIP eta Heriotza ziren eskaintzaren plater nagusi, eta horrexegatik, azkenengo taulara ziren.

Heriotzarekin jendea gustura egon zen, baina, duda barik, RIPeko kideak taula gainera igo zirenean hasi zen jaia.

Kantxan izan nintzen lagun batekin eta halako batean komunera joan behar eta, gora igo ginen. Kontzertua amaitzear zegoen eta *Mondra* kantua jotzeari ekin zioten. Orduan bai garrasiak eta txaloak. Guztiek abestu nahi izan zuten arrasatear askorentzat herriko ereserki bihurtu dena. Gazteak, eta ez hain gazteak, saltoka ibili ziren garai bateko punkak bezala. Birziklatutako punkak gehienak; batzuek gerria zabalagoa ere bazuten!

Punk not dead esan izan da, eta han ikusitakoaren ondoren, badirudi ordukoa izan zela euskal musika taldeen sasoirik onena.

Marijo Deogracias

astea bi hitzetan

■ Bonba zelakoan

Egubakoitz goizean Ertzaintzak Udalpe kalea eta inguruak itxi zituen. Edukiontzien baten ondoan zegoen poltsa batek susmo txarra piztu zuen eta Ertzaintzaren artezilaria joan ziren poltsa aztertzeko. Zorionez, botila batzuk besterik ez zeuden, eta guztia susto hutsean geratu zen.

■ Hitzarmena erremintariarekin

Bixente Barandiaranek eta Xabier Zubizarretak hitzarmena sinatu zuten egubakoitzean Markoetxebarrian, Bixente Barandiaranen baserrian.

Horren arabera, Cerrajerara eramango dira Bixente Barandiaranen lantegia eta bere beharrerako erabili dituen erremintak; sutegia bera erreproduzitu egingo dute. Hori guztia, Arrasaten egin nahi den industria muse-

orako. Datorren urtean hasiko dituzte lanak.

■ Latinoamerikara

Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko 18 ikasle (arrasatearrak tartean) Hego Ameriketara joango dira urtarrilean praktikak egiteko; Venezuela, Mexiko, Nikaragua eta Hondurasen egingo dituzte.

Guztiak Irakasletzako hirugarren mailako ikasleak dira eta bi hilabetez jardungo dute Latinoamerikako eskolatan.

■ Master berriak

Mondragon Unibertsitateak, Gasteizko Udalak eta Gaia elkarteak Interneteri buruzko bi master abian jartzeko hitzarmena sinatu zuten pasa den egunean.

Master bakoitzak 500 ordu izango ditu, 380 teoriakoak eta beste 150 ordu, praktikoak.

Ikastaroa Mondragon Unibertsitateak gidatuko du, baina eskolak Gasteizen emango dira, udalak utzitako gelatan. Teknologia elektronikoko industriak batzen dituen Gaia elkarteak, berriz, hezkuntzarako elementu teknikoak jartzeaz arduratuko da, besteak beste.

■ Mondragon Graphics

MCCren baitan enpresa berria jaio da, grafikoen arloan. Mondragon Graphics" da bere izena eta "Graficas Elkar" (Loiu), "Litografia Danona" (Oiartzun) eta sortu berri den "Rotok Industria Grafica SA" (Orereta) enpresek osatzen dute.

1.600 milioi pezetarekin irtengo da merkatura, baina, hiru urtean 4.000 milioi pezetako fakturazioa lortzea espero dute, %40a esportazioen bidez. Espainiako merkatuaz gain, Europan sartzea ere aurreikusitako du talde berriak.



■ AEKren alde

Euskal Herriko hainbat tokitan bezala, gure bailaran ere AEKren aldeko mobilizazioak izan dira, eta datozen egunotan ere izango dira. «AEK aurrera, euskara aurrera, erasorik ez» da Mondragoen erabilitako leloa.

Garzon epailearen jokabidea salatzea eta Garzonek egotzitako gazteei elkartzasuna adieraztea da agerraldien helburua.

Aste honetan, atzo eta gaur, izan dira kale agerraldiak.

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M
ARENAZA
Bizkai, 1 • ARETXABAETA
Tel.: 943 79 08 07

'1.000 Baietz', bai horixe!

Euskalgintzaren baitan diharduten herriko taldeek 1.000 sinadura baino gehiago batzea lortu dute *1.000 Baietz* izeneko kanpaina. Sinadura horien bitartez, Justizia Administrazioari adieraziko zaio herritarrek euskara erabili nahi dutela, justiziarekin lotutako edozein erakunderekin izango duten harremanetan.

Orain, batetik, batutako sinadurak Bergarako epaitegi-
era eramango dira, eta bestetik, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailari bideratuko zaizkio.

Ander Elortondok, AED-ko idazkari nagusiak, balorazio positiboa egin du: «bate-
tik, egoera zein den ikusi ondoren, talde guztiak ondorio berera heldu garelako: euskararen alde zerbait egin beharra zegoela. Guztiok bat egin dugu, gainera, Euskal Herrian Euskaraz-ek eskatzen dituen sei oinarriekin; oro har, Justizia Administrazioan herri-



tarrek hautaturiko hizkuntza erabili behar da, euskara berrane. Are gehiago: udalak gauza bera eskatzen zuen mozio bat ere onartu zuen.

Eta noski, kanpaina horrekin ikusi dugu herria gurekin dagoela eta orain indar hau aprobeztatzen jakin behar dugu, administrazioari euskararen erabilera exigitzeko».

Kanpaina amaitzeko, mahainguru bat antolatu dute

datorren hilaren 14rako. *Justizia euskararentzat* lelopean, euskararen egoera aztertuko dute ikuspegi guztietatik. Horretarako, Abel Muniategi Eusko Jaurlaritzako justizia sailburuordea, Nekane San Miguel epailea eta Luis Barinagarrermenteria abokatua mahaiaren bueltan jarriko dituzte. Mikel Irizar izango da moderatzailea.

Vanessari laguntza

Minbiziak jota dagoen 18 urteko Vanessa Vallejo mondragoetarraren sendiak laguntza eskatu du, gaixotasuna sendatzeko beharrezkoa den tratamendu berezi eta garestiari aurre egiteko. Euskadiko Kutxaren honako kontu korrontean sartu beharko da dirua: 3035-0001-56-0010081604

Bi arrasatear Gipuzkoako PSEn

Rafaela Romero eta Paco Garcia arrasatearrek toki bana dute Gipuzkoako PSE-EEren zuzendaritzan, zapatuko biltzarrean egin ziren bozketen ondoren. Manuel Huertas idazkari berriaren lantaldean daude bi mondragoetarrak. Rafaela Romero lurralde Antolakuntza eta Ingurumen Saileko ardura-



dun aukeratu dute; Paco Garcia, aldiz, bokala da zapatuz geroztik.

Kolonbiari laguntzeko



Harreman Gobernu Kanpoko Erakundeak azoka berezia antolatu du hemendik eta Gabonak arte. Mondragoeko eta inguruko zenbait artistak emandako margolanak salgai jarri dituzte Seber Altuben. 40 bat artelan daude; Arrieta, Etxebarria, Galarta eta Xeli bezalako artisten lanak.

Hortik aterako duten dirua Kolonbiako San Clemente herrirako izango da, hango industriari bultzada emateko. 10 milioi pezeta batu behar dituzte helburua lortzeko.

Konstituzioaren aurka

Ikasle Abertzaleak-ek deituta mobilizazioak egingo dituzte herriko hainbat ikastetxetan. *Konstituzio Inposatzaile-rik ez!* lelopean kale agerraldia izan da gaur, eta bihar, goizeko 10etan bi hitzaldi izango dira. Protesta ekitaldi hauen bidez, euskal kurikulumua eta hezkuntza sistema nazionala aldarrikatuko dituzte ikasleek.

MADINA ZURAK
Aroztegia

Olak, aglomeratuak, kontratxapatuak, tablexa, atek, egurrezko leihoak, oin-inguruak, zangoak, aroztegilko osagarriak.

Zarugalde, 38 • Tel.: 943 79 13 78

Jili Jili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

ML


ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiatu koloretan
Planoen kopia
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62



URTE ASKOTARAKO, BIKOTE!

1975eko azaroaren 8an ezkondu ziren Enrike Etxebarria eta Mari Carmen Martin. Azaroaren 11n, zapatua, ospatu zituzten zilarrezko ezteiak. Semeek eta ilobek zorionik bero-beroenak opa dizkiete, eta geuk ere bai!




BADATOZ GABONAAAAK!!!!

Abenduaren lehenean, goizeko 9etan, ateratako argazkia duzue hau.

Arrasateko Udala Gabonak iristeko irrikitan dagoela dirudi. Iritsi orduko asper-asper eginda egongo gara. A! Eta argiak ordura arte piztuta edukiz gero, ordaindu beharrekoa ez da ez, gutxi izango!



EMAKUMEAK ETA LITERATURA



Irakurle finak dira, eta zale-

tasun horretan sakondu nahian ari dira emakume hauek "Emakumea eta Literatura" tailerrean parte hartzen. Lehenengo saioa joan den astean izan zuten, eta gustura aritu ziren liburu kontuetaz.

Sukalde altzarien fabrika eta horman-armairuak



- Fabrikako prezioa
- Erakusketa zabala. 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Azken berrikuntzak

Kataide Industrialdea, 6. pabilioia
ARRASATE • Tel.: 943 71 25 08

Expres kafetegia

- Ogi egin berria
- Olagarroa eta riveiro ona
- Urdaiazpiko egosia
- Kazuelatxoak

Maalako errebala, 8 • Tel.: 943 77 13 87

DATORREN ASTETIK AUERRERA
HAMABOSTERO...

Arrasate XXI




...HELDUKO ZAIZUE ETXERA,
ARRASATE PRESSEKIN BATERA

AURKIBIDEA

- 1 KANPAINAREN AURKEZPENA
- 2 GARAPEN JASANGARRIA
- 3 JASANGARRITASUNAREN ADIERAZLEAK
- 4 NEGOZIAZIO IREKIN BIDEZ ARAZOEI
KONPONBIDEA EMATEA
- 5 NATUR BALIABIDEAK
- 6 JUSTIZIA SOZIALA
- 7 LURRAREN ERABILERA JASANGARRIA
- 8 MUGIKORTASUN JASANGARRIA HIRIAN
- 9 KLIMA ETA ENERGIA
- 10 INFORMAZIOA, HEZKUNTZA, PARTEHARTZEA
- 11 DINEZKOEN ESKUBIDEAK 1
- 12 DINEZKOEN ESKUBIDEAK 2

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA

Lurraldearen Antolamendua
Etxebizitza eta
Ingurumen Saila



ARRASATEKO UDALA

LOURDES VIGUERA (JOSTUNA)

«Jendeak ez du josi nahi»

Azkoitiarra da jaiotzez Lourdes Viguera, baina orain 13 urte Arrasatera etorri zen bizitzaz. Jostuna den aldetik, abenduaren 13an, Santa Luzia egunean, izango du Lourdesek jostun eta josten zaindariari ikusmena kontserbatzeko grazia eskatzeko aukera.

— Noiztik zara jostun?

— 12 urte nituela hasi nintzen josten ikasten. Gustatu egin zitzaidan eta jarraitzea erabaki nuen. Titulua 28 urterekin atera nuen. Hasieran ez nuen pentsatzen horretan lan egingo nuenik, baina Arrasatera etorri nintzenean lan eskaera zegoen Lilura jostundegian, eta ordutik han nago.

— Gogorra izateko ospea du lanbide horrek.

— Bai, egia da gogorra dela. Baina, hori baino, jarrai-

tu beharreko lana da. Gustatu ere, gustatu egin behar zaitzu. Nik, adibidez, atsegin nuen eta gustura josten dut, baina jarraipena eman behar diozu; hori da gakoa.

— Zaila da ikasten?

— Albainua sartzea gauza bat da, eta hori erraz ikas dezakezu; baina, horrekin ez zoaz inora ere: poltsikoak, lepoak... egiten ikasi behar da. Eta ez hori bakarrik: kortea ere ezinbestekoa da.

— Zer motatako lanak egiten dituzu?

— Denetarioak. Gehien-gehien, gonak egiten ditut. Baina, garaian garaiko arropak eskatzen dizkigute: berokiak, trajeak, soinekoak, bainu-soinekoak... Maritxu Kajoirako jantzi dotoreak ere askotan enkargatzen dizkigute. Horrez gain, kon-


ponketa lanak egiten ditugu, baina nik, batik bat, arropak josten ditut.

— Zeintzuk dira josten zailenak?

— Maritxu- txurako soineko eta trajeak; askotan, jendeak eredu ikusten du eta horren ber-

din-berdina nahi du, baina beti ez da berdin-berdin geratzen.

Behin eskatu zidaten beroki bat ere gogoratzen dut: hainbat buruhauste izan nituen. Baina, jeneralean, ez didate enkargu konplikaturik egiten.



«Josten dakitenek estimatzen dute gure lana; ez dakitenak, ordea, kexatu egiten dira batzuetan»

li izaten»

— **Jendeak estimatzen du zuen lana?**

— Josten dakitenek bai, badakitelako zelako lana den; ez dakitenak, ordea, kexatu egiten dira batzuetan: gehiegi kobratzen dugula, hori berehala egiten dela... esaten dute. Horrek erakusten du ez dakitela zenbat denbora behar den arropa bat josteko.

— **Bigarren talde horretako jende asko dago?**

— Bai; izan ere, jendeak ez du josi nahi izaten, ezta konponketa txikiak egiteko ere. Puntada erdi bat emateko ere

nahiago dute dendara ekartzea, ordaindu behar dena ordaintzea, eurek egitea baino.

— **Santa Luzia eguna ospatuko duzu, ezta?**

— Bai, bi aldiz, gainera: lehenengo, Azkoitian, ama eta ahizparekin; gero, hemen, Arrasaten, jostunok afariren bat egingo dugu. Aurten ere egingo dugu, baina Santa Luzia asteguna denez, zapatuan ospatuko dugu.

— **Orain modan dago afari horietan mutilen *strip*teak antolatzea. Zuek izan**

dituzue?

— Bai, iaz bi mutil aritu ziren. Giro polita egoten da.

— **Eskatuko diozu Santa Zeziliari ikusmena kontserbatzeko grazia ematea?**

— Ez dakit hori benetan horrela izango den edo ez, baina tira, badaezpada eskatzen diot, bai.

— **Zelan ikusten duzu ogibide honen etorkizuna?**

— Jende gehienak josten ez duenez, lan handia izaten da. Baina, horrexegatik, ogibide honen etorkizuna kolokan

dago, gazteek ez duelako jostun izan nahi. Adibidez, orain denda asko itxi dituzte Gasteizen, jostunik ez zegoela eta. Nire ustez, lanik ez zait faltako; baina, denbora joan ahal, lanbide hau desagertu egingo den susmoa dut.

— **Gaur egun, zein da zuen egoera?**

— Ez da behar bezain ona. Ez dugu segurantzarik, ez eta ordaindutako oporrik ere. Gainera, ez daukagu egunean lanordu kopuru finkorik ere. Hartzen diren oporrak norberaren kontura dira. ■

3.000.000 ibilgailu baino gehiago aseguratuta, lasai-lasai errepidean



Problemarik gabe

Egin kontuak! 2.400 bulego, 12.000 lagun zure zerbitzura, 4.000 konponketa gune

MAPFRE Lehenengoak auto aseguruetan

Garibai Etorbidea, 16 • Tel.: 943 79 89 00 / 943 79 67 22 • Arrasate Pasealekua, 37 • Tel.: 943 79 71 31 / 943 77 03 04

FUTBOLA Emaitza bikainak



Mondrako futbol taldeek harro egote-ko moduko asteburua izan zuten. Hitzartutako partida bat bera ere ez zuten galdu. Lehen erregionalekoen neurketa izan zen, agian, kaskarrena. Binako berdinketarekin amaitu zen Atxabalpeko partida. Mondra eta Kilimon aritu ziren aurrez aurre.

Lehen mailako gazteek irabazi egin zuten Zumaiakoren aurka (0-3). Bigarren mailako gazteek berdindu egin zuten Urkiren aurka (3-3). Hauek Eibarren jokatu zuten partida.


Ohorezko kadeteek ere berdindu egin zuten (2-2) Donostiako Mariaren Bihotzaren aurka. Bigarren mailako kadeteek irabazi egin zuten. Lau gol sartu zizkieten atxabaltarrei. Derbia 4 eta 1 amaitu zen.

Egindako jokoa aipatzekotan, ohorezko infantilena ekarriko dugu gogora. Eibar-

ko taldea zuten aurkari; talde sendoa eta gogorra. Baina, arrasatearrek euren jokoa ondo egin zuten eta 1 eta 2 irabazi zuten.

Azkenik, Esti Loitik entzuten dituen neskak aipatu behar ditugu, 3 eta 1 irabazi zuten-eta Debaren aurka.

PILOTA Finalerdiak



Taldeen arteko finalerdiak jokatu zituzten Osinagak eta Lazkanok joan den asteburuan Uarkapen. Añorgaren aurka 16 eta 22 galdu zuten. Oteiza añorgarrak partida bikaina egin zuen atzealdean, eta berari esker, irabazi egin zuten bisitariak. Asteburuan itzuliko partida jokatu dute Añorgan. Han egiten dutenaren arabera ikusiko da zein sailkatzen den taldeen arteko txapelketako finalerako.

Zuazuk eta Agirrek, bestalde, 22 eta 8 irabazi zuten

Tolosaren aurka. Jipoi, beraz, tolosarrentzat.

Egubakoitzean eibartarren aurka jokatu dute Errastik eta Zuazubiskarrek. Hau ere finalerdiako partida da. Eibarren Etxabe eta Bengoetxearen aurka 4 eta 22 irabazi zuten mondragoetarrek. Uarkapen, beraz, ez dugu gutxiago espero. Euren ondoren, bigarren urteko kadeteek jokatu dute: Gozalok eta Arroiabek. Partida hau ere taldeen arteko txapelketakoa da.


ERRUGBIA Seniorrek bakarrik



Kadete mailako partida bertan behera gelditu zen azkenengo unean, eta gazteek ere ez zuten neurketarik izan. Kontuak horrela, seniorrek bakarrik jokatu zuten Zarautzen aurka. Eta hauek ere jokatu ez balute, agian hobeto, galdu egin zuten eta. Atsedenaldira 17 eta 0ko emaitzarekin iritsi

ziren. Aurrelariak lokartuta ibili ziren eta 3. eta 4. lerroko jokalarien hutsegite bat aprobetxatuz, Zarautzarrek bi entsegu egin zituzten. Gauzak hobeto egiteko asmoz ekin zioten bigarren zatiari; bai meletan eta bai Touchetan mondragoetarrek hobeto aritu baziren ere, azkenean kanpokoak nagusi.

ESKUBALOA Gazi-gozoa



Asteburu gazi-gozoa izan dute Arrasateko eskubaloitaldekoek. Seniorrek eta kadeteek ezin izan zituzten euren aurkariak mendean hartu. Arrasate Almen taldekoek 8 goleko aldearekin galdu zuten Legazpiko Lasaiaren aurka: 14 eta 22. Kadeteek 8 eta 24 galdu zuten Hondarribian, eta gazteek, berriz, irabazi egin zuten Arrasaten (29-16), Leizaranen aurka.

Asteburuan atsedena izango dute talde guztiek.

Emaitzak

ESKUBALOA

- **Seniorrak:** Arrasate Almen 14 - Legazpi 22
- **Gazteak:** Arrasate 29 - Leizaran 16
- **Kadeteak:** Hondarribia Bidasoa 24 - Arrasate 8

SASKIBALOA

- **Seniorrak:** Paules Carrefour 63 - Kenci Arrasate 95
- **23 urte azpikoak:** Kenci Arrasate 68 - Elgoibar S.T. 58
- **Juniorrak:** Andraitz Legazpi 48 - Kenci Arrasate 62
- **Kadeteak neskak:** Kenci Arrasate 65 - STL LIZARDI 46

FUTBOLA

- **Lehen erregionala, mutilak:** Mondra 2 - Kilimon 2

• Lehen erregionala, neskak:

Mondra 3 - Hamaikak Bat 1

• Lehen mailako gazteak:

Zumaiakoak 0 - Arrasate 3

• 2. mailako gazteak:

Urki 3 - Arrasate 3

• Ohorezko kadeteak:

Donostiako Mariaren Bihotza

2 - Arrasate 2

• 2. mailako kadeteak:

Arrasate 4 - UDA 1

• Ohorezko infantilak:

Eibartarrak 1 - Arrasate 2

PILOTA

• Taldeen arteko txapelketa

Arrasate 16 - Añorga 22

• Liga

Arrasate 22 - Tolosa 8

PALA GOMAZ TXAPELKETA

J Acedo, A. Muruamendiaraz
35 - M eta O Urigoitia 29

Jokatzekoak

SASKIBALOA

- **Seniorrak:** Kenci Arrasate - Leioa, larunbatean, 18:00etan, Iturripen
- **Kadeteak, neskak:** Kenci Arrasate - Iraurgi Sabi, asteartean, 20:00etan, Musakolan

FUTBOLA

- **Lehen mailako gazteak:** Mondra - Amara Berri, larunbatean, 11:30
- **Ohorezko kadeteak:** Arrasate - Hernani, ostiralean, 11:30

igandean

- **2. mailako kadeteak:** Arrasate - Bergara, 12:00etan

• Ohorezko infantilak:

Arrasate - Aldapetarrak, 10:00etan

PILOTA

• **Taldeen arteko txapelketa** (Finalerdiako itzulia)
Arrasate - Eibar

• ETB saria

ostegunean, Uarkapen, 20:00etan

• Gazteak:

Baleztena, Uharte - Uharte, Gorriti

• Lehen mailako afizionatuak:

Eguzkiza, Begino - Ketxu, Txikito

Amaitu da frontenis txapelketa

Joan den asteburuan jokatu ziren Aretxabaletako frontenis txapelketako finala eta 3. eta 4. tokiak.

Begararrak eta arrasatearrak arituko zirela esan genizuen, baina azkenean, Arrasateko bi bikotek jokatu zuten finala. 25 eta 24 irabazi zuten Iñaki Sanchezek eta Kepa Garcia. Aurrez aurre Jose Izquierdo eta Candido Urtado izan zituzten. Bi bikoteak berdintsu aritu ziren eta lehenengo 8 puntuen ondoren, oso parekatuta zeuden. Azkenean, ordea, puntu batengatik, baina Iñakik eta Kepak irabazi zuten. Hirugarren tokian Patxi



Aretxabaletako frontenis txapelketako finaleko bikoteak.

Vallejo eta Xabier Albizua bazi eta gero Igor eta Cusi-
gelditu ziren, 25 eta 18 iraren aurka.

Txapelketak prestatzen

Arrasate Kirolak Atletiko Taldeko kirolariak Anoetako pistetan izan dira asteburuan. Gipuzkoa, Euskal Herria eta Espainiako txapelketak jokatu ahal izateko gutxieneko markak egin behar dituzte, eta horiek lortzeko probak jokatu zituzten.

- Pisu jaurtiketan, Iñaki Vite-ri (9,10 metro).
- 1.000 metroetan, Ibai Iras-tortza (3'10") eta Josu Saiz (3'13").
- 60 metroetan, Jurdana Aya-la (8"90).
- 200 metroetan: Mikel Apraiz, (23"86), Martin Davila (24"06) eta Remi Diosdado (24"04).

Triatloi txapelketa Arrasaten

Ekainaren 9an jokatu da Arrasateko lehenengo triatloia. Askok gelditzen da ordu arte, baina Triatloi taldeak dagoeneko ibilbidea prest dauka: Urkulun 1,5 kilometroko igeriketa proba egingo dute. Gero, bizikleta hartu eta honako ibilbidea egingo dute: Aretxabaleta-Epele-Kanpanzar-Arrasate-Aramaio-Untzilla-Aretxabaleta-Arrasate. Laubide plazara iritsi orduko 40 kilometro egingo dituzte parte hartzaileek. Hantxe triatloiaren hirugarren zatia hasiko da: 10 kilometro korrika.

Antolatzaileek 200 bat lagun espero dituzte Arrasa-

teko triatloian. Denboraldiko lehenengoa izanik, Lekeition eta Zarautzen egingo diren txapelketetarako entrenamendua izango da.

SASOIKO DAGOEN TALDEA

Hogei bat lagunek osatzen dute Arrasateko triatloi taldea, eta herrikoez gain, Aretxabaleta, Oñati, Bergara eta Zarauzko jendea ere badago. Taldeko kide da Jon Aperribai: Espainiako txapelketetan ibilia da eta emaitza bikainak lortu ere. Taldeak Sabiñanigoko mendiko duatloia jokatu zuen azkeneko, eta txapeladunorde izan ziren.

Oier Etxeberria taldeko kideetako bat da, eta berak aitortu digunez, «taldean geroz eta gehiago gara eta gure maila ere hobetu dugu. Txirrindulari, mendizale eta atleta izandako jende asko ari da hasten eta giro ona dago. Ez dugu lasterketak irabaztean bakarrik pentsatzen, afariak, leku berriak ezagutu... Gogorra da, baina oso polita. Hainbat kiroletan aritzeak entrenamendua asko arintzen du».

Taldeko kideak txapelketa antolatzekeo behar duten diruaren bila bada-biltza.

Oraingoan, bai

Kenci Arrasate saskibaloi taldeak irabazi egin zuen joan den igandean. Barakaldon jokatu zuen Paules Carrefour taldearen aurka. Azken emaitza 63-95 izan zen. Abenduaren 6an Iruñean jokatu dute Erro eta Eugiren aurka. Atzeratutako partida da. Abenduaren 9an, berriz, Iturripen arituko dira Leioaren aurka.

Egun horretan Gabonetako saskia eta Cazzolo jate-txean bi lagunentzako afaria zozkatuko dira bazkideentzat. Oraindik badago Gabonetarako txartelak erosteko aukera.

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



Danona
KARROZERIAK

Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99



Jipoiá

Hamabost eta lau galdu zuen Fraguél Gol taldeak Etixerat Taberna taldearen aurka. Gogor hasi dute, bai, Etixerat-ekoek Zaldibarko txapelketa. Dagoeneko 39 gol sartu dituzte.

Emaitzak

A taldea

Komando Alpargat 6 - Goma 2 4
Txeyenex 1 - Katxiporra 3
Betrayer 4 - Lasabaster 5
AL Ion 5 - IKP 10
Serengeti 3 - Makanaki FC 1
Kanp. Harrobia 3 - Bikain Ak. 3
You Know Azkena 0 - Leya 0
Dribling 4 - AC Surkos 5

B taldea

AT Celaya 5 - Pepelus.inser.com 1
Etixerat Tab.15 - Fraguél Gol 4
KJ Basati 6 - New Makai 1
Rayo Aldeano 7 - EPEH 2
Full 6 - Alai Gozokiak 2
DKB Kobate 5 - Txotx 0
Irati STS 1 - Kamasutra 3
Sas T 0 - Usotz Potroak 8
Iriztu 3 - AKTA 2

ANTOLATZAILEAK, ESKUZABAL

Komando Alpargat eta Goma 2 taldeen arteko neurketan jokalaria baten aurkako neurriak hartu zituzten Zaldibarko antolatzaileek. Kontua da Goma 2 taldeko jokalaria batek aurkari bat jo zuela eta ika-mika handia sortu zela. Hori dela eta, bost partidako zigorra jarri zioten jokariari.

Partidaren amaieran, ordea, zigortutako jokariak damututa zegoela esan zuen, eta antolatzaileak eskuzaballak izatea erabaki dute eta zigorra murriztu. Horrela, bada, jokalaria horrek hurrengo lau partidatan ezin izango du jokatu.

DENBORA HARTU EZINDA

Txapelketa jokatzen ari diren hainbat talde kexu dira epaileek partidaren iraupena hartzeko erabiltzen duten metodoarekin. Dirudienez, ez dute araututako iraupena errespetatzen eta partida guztiak ez dira iraupen berekoak. Beraz, epaileak, adi erlojuari. Kronometroren bat edo beste aurkitzeko modurik izango duzue, bada?

ASTEBURUAN, JAI

Ez dute ez zorte makala Zaldibarren jokatzen dutenek. Abenduan jardunaldi bakarra jokatuko dute. Hasteko, datoren asteburuan jai izango dute Sortzez Garbiaren egu-

na dela eta; eta hurrengo bi asteburuetan, hau da, Gabonetan, opor luzeak hartuko dituzte. Eta urte berria ere berandu hasiko dute. Erregeei ongietorria egiteko ez dute partidarik jokatuko. Hau da hau, jira! Sasoi betean daudenak ere makaldu egingo dira.



ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE



Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •
Erradapiak • Leihoak • Ateak •
PVCKo leihoak •
Aluminiozko leihoak •
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketa eta bilgetia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

“PAL” burdindegia, brikolage eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

ANTONIO PEREZ-ESCLARIN (IRAKASLEA)

«Pobreek hezkuntzarik onena jaso behar dute»

Venezuelarra da Antonio Perez-Esclarin. Hego Amerikako *Fe y Alegria* hezkuntza erakundeak zuzendaria da. Mugak bata bestearen ondoren gainditzen ari da bere erakundea, eta oraingoan gurera etorri da Antonio, Mondragon Unibertsitateko Humanitate Fakultatera.

—Zelan egiten du lan Fe y Alegriak?


—Pobreek, hezkuntza pobre bat baino, hezkuntzarik onena jaso behar dutela uste dugu guk, eta horretan gabiltza. Pobreendako 200 ikastetxe eta hainbat unibertsitate-institutu zabaldu ditugu. Baina, familiekin ere egiten dugu lan, eskola utzi duten ume eta gazteekin, Venezuelan 10etik 6 gazte lanik eta ikasketarik gabe daudelako. Lanerako, baina baita pertsona moduan ere, berreskuratu nahi ditugu; izan ere, ikasketak utzi behar izan dituenak autoestimua baxua izaten du.

—Zer dela eta zaitugu hemen?

—Gure erakundearen eta Euskal Herriaren arteko elkarlan eta harreman iraunkorra sustatu nahi dudalako etorri naiz. Adibidez, orain, Mondragon Unibertsitatean irakasle ikasketak egiten dabilzan 16 gazte hara eraman nahi ditut praktikak egitera, Hego Amerikara eta Ertamerikara.

—Dirudienez, badugu elkarrengandik zer ikasi.

—Bai. Hemen, adibidez, oso herri eskuzabal, langile eta ekintzailea aurkitu dut; baina, Venezuelan, bazterketa handia izan arren, giza emari aberatsa dugu. Zentzu horretan, halako neke bat sumatu dut hemen: erosotasun osoz bizi



zarete, baina ilusioa falta da, bakoitzaren muga eta arazo txikien gainetik begiratzen ikastea. Gure arazoak sakonegi bizitzeak beste errealitate batzuetaz ohartzea galarazten digu. Eta hezkuntza proposamen bat zibilizazio proposamena den neurrian, hezkuntza kontu globala dela konturatuko gara. Mundu mailan pentsatzen ikasi behar dugu, alegia, besteen begietatik so egin errealitateari.

—Hitz ederrak, baina zelan gauza daitezke egunetik egunera?

—Beste era bateko hezkuntza bultzatuz. Teknologia eta informazio asko bai, baina giza alderdia ahaztu duela da nik gaurko hezkuntza ereduari egiten diodan kritika handiena. Bestalde, hemen, garatutako munduan, xamurtasunean bizitzen ikasi beharko zenukete, eta ez gauzak “edukitzeagatik” hainbeste arduratu.

«Pobreendako 200 ikastetxe eta hainbat unibertsitate-institutu zabaldu ditugu»

aste gazte

■ DIRU LAGUNTZAK

- Bilboko Arte Ederretako museoa ikasketak edo ikerketak egiteko diru laguntzak. Epea: abenduak 22.
- Jose Migel Barandiaran Fundazioaren eskutik, Euskal Herriko arkeologia eta etnologia ikeritzeko diru laguntzak. Epea: abenduak 31.
- Europako Parlamentuan praktikak egiteko aukera. Epea: abenduak 31.
- Arartekoaren Europako bulegoan praktikak egiteko laguntzak. Epea: abenduak 31.
- ICEXek atzerrian komertzio eta ekonomia bulegoetan praktikak egiteko diru laguntzak. Epea: otsailak 28.

■ LANA

- Oreretako Udalerako administrari eta administrari laguntzaileak behar dira. Epea: abenduak 12.
- Azpeitiko Udalerako gizarte langilea behar da. Epea: abenduak 14.
- Oiartzungo Udalak arkitektoa behar du. Epea: abenduak 17.

■ IKASTAROAK

- Emakumeentzako soldaduraren ikastaroa; emakume langabeei zuzendua. Ikastaroa Oñatin izango da, azaroan hasi eta martxoan arte, goizez.
- Geriatria ikastaroa, emakume langabeei zuzendua. Arratsaldean izango da ikastaro hau. Epea: azaroak 30.

■ LEHIAKETAK

- Gabonetako postal-txartelen lehiaketa antolatu du Sondikako Udalak, eta urte berria zoriontzeko txartel lehiaketa Zarauzko Gaztelekuak. Epeak: abenduak 13 eta 15.

Argibideak:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

Akordeoi doinurik onenak, Arrasaten



Zaila izaten da epaimahaiarentzat irabazleak aukeratzea; egubakoitzean izango da hori.

Goren mailako musika doinuz jantzi da Arrasate, izan ere egunotan jokatzeko ari dira Arrasateko akordeoi lehiaketak, Euskal Herriko Akordeoilarien Elkarteak, Hauspoz-ek, antolatuta. Lehiaketako momenturik onenekin CDa egingo da.

NAZIOARTEKOA

Zortzigarren urtez, nazioarteko lehiaketak munduko lau izkinetako akordeoi jotzaile bikainak erakarri ditu Arrasatera. Lau sari emango dira: 500.000 pezeta, trofeoa eta txapela; 250.000 pezeta eta trofeoa; eta 100.000 pezeta; eta



Onenarentzat, dragoia eta txapela.

lehiakide jatorrenari saria ere. Aidar Gainullin errusiarra eta Miroslav Grahovac jugoslaviarra dira faboritoak. Lehiaketa hasi den arren, bihar egingo zaie ongi gorria parte hartzaile guztiei eta epaileei.

BEREZIA


Hauspoz-en esanetan, «nazioarteko lehiaketen artean, berezia da Arrasatekoa», munduan egiten den urteko azken txapelketa delako. Abenduaren 8a arte, egunero dago saioaren bat Amaian.

Beraz, lehiaketa gain, Arrasateko jardunaldiek Europako estiloak ezagutzeko eta gure

doinuak kanpora eramateko aukera ere ematen digute. Lehiakideen emanaldiak alde batera, iazko txapeldunak, Sergei Voitenkok, kontzertua emango du Arrasaten abenduaren 7an.

BESTE BI

Nazioarteko lehiaketaz gain, beste bi jokatu dira bihurtik aurrera: Gipuzkoako XXI. lehiaketa, Euskal Herriko eta Espainiako ume, gazte eta senior kategorietako musikariendako; eta Gipuzkoako XIII. jaialdia, non parte hartzaileek banaka edo binaka joko duten.



**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

Sari gehiago Arrasate Irratian

Joan den astean pilota partidarako sarrerak banatu zituzten Arrasate Irratian, eta aste hone-tan ere egongo da beste zozketarik: abenduaren 11tik 21a bitartean, *Argia* astekariak eskainitako sari batzuk zozkatuko dira.

Argia harpidetza kanpaina egiten ari da eta, horregatik, sari batzuk helarazi ditu Arrasate Irratira. Honako sari hauek egingo dira zotz: *Argiaren* 4 harpidetza 6 hilabeterako, 10 egutegi eta *Gure Mendea* izeneko sei liburu, CD-ROM eta guzti. Opari hauen guztien zozketa hila-ren 21ean egingo da.

Parte hartzeko Arrasate Irratira deitu beharra dago (943 71 17 31) aste barruan. Izena eta telefonoa eman beharko dira, zuzenean zozketa zerrendan sartzeko.

ITXARO ZUBILLAGA ARRASATE IRRATIAN

Bihar eta etzi, hilaren 6an eta 7an, Arrasate Irratiak ez du jairik hartuko, ez goiz partean, behintzat. Gauean ez da kolaboratzaileen saiorik egingo, baina goizez eta arratsaldez Arrasate Irratiarekin bat egiteko aukera izango duzu. Bihar, asteazkena, desobedientzia zibilaren inguruko elkarri-zketa egingo du Aitziber Aranburuzabalak. Egun horretan *Euskaldunon Egunkariak* 10. urteurrena beteko du, eta horren ganean ere izango da elkarri-zketarik. Hilaren 7an, berriz, Itxaro Zubillaga eta Maider Egües igoko dira Arrasate Irratiko autobusera.

Bestalde, gogora ezazue 13:00etatik 14:00etara Euskadi Irratiarekin bat egiten duela Arrasate Irratiak.



kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO
KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Abenduak 15: Flitter + Freak 21 + πLT

Abenduak 16: Los Suaves

Egun bakoitzerako **2** sarrera

zozketatuko ditugu. Azken eguna: datorren egubakoitza. Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

Izen-deiturak:

Tel.:

Bidalari gurea: Arrasate Press, Otalora 31

Abenduaren 8ko kontzerturako sarrerak zozketatuko dira Arrasate Irratian. Tel.: 943 71 17 31.

arrasate
irratia



ASTELEHENA - OSTIRALA

- 09:00 Egunon Arrasate eta prentsaren erreposao.
- 09:55 Egunko hitzorduak.
- 10:00 Igo autobusera I.
- 11:00 Albistegia.
- 11:15 Igo autobusera II.
- 12:30 Agenda, eskelak...
- 12:45 Albistegi nagusia.
- 14:00-18:00 Errepika.

ASTELEHENA

- 20:00 Jokoz Kanpo.
- 21:00 Draxtor.
- 22:00 In Session.

ASTEARTEAN

- 20:00 Hi bizi hadi.
- 21:00 Jakidiplost.

ASTEAZKENEAN

- 20:00 Binilo ordua.
- 21:00 KK2A.

OSTEGUNEAN


- 20:00 Ostegun-Ero.
- 21:00 Arakutzen.

OSTIRALEAN

- 20:00 Planing Prest.
- 21:00 Kale Doinuak.

LARUNBATEAN

- 10:00 Bihurrikieretan.
- 11:00 Musika klasikoa.
- 12:00 Bi zoro eta zu.



OPEL

TALLERES **OLA**

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Olabarrena auzoa, z/g
Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47 • BERGARA

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN
Araba etorbidea, 3 (Eskatu pabilioia) • Tel.: 943 79 05 86



Santa Luzia eguna dela eta, jostunak gogora ekartzea ezinbestekoa iruditu zaigu, eta hona hemen jostun koadrila eder baten argazki zaharra.

Orain dela 35-36 urteko Santa Luzia eguna ospatzeko elkartu ziren Bueno tabernan. Juanita Larrad jostunaren ikasleak ziren.

Zutik daudenak hauexek dira, ezkerretik hasita: Ara-

celi Moreno, Jesusa Acha, Mari Paz Rodriguez, Juanita Larrad, Paquita Manso, Aurora Garcia, Lola Lopez eta Feli Viteri.

Eserita daudenak, berriz, honakoak dira: Ana Larrad,

Espe Guerrero, Cati Mejias, Cati Andres, Mertxe Muxika eta Avelina Larrad.

*Argazkia: Cati Andres.
Berriemailea: Avelina Larrad.*



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Etxeko konponketak

Aroztegia

Armairuak, hormako armairuak, ateak, oholtzak, leihoak etab.



Garagartza auzoa, 5-2,
(Bixiena Baseria) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 608 77 40 83

ARROZTEGIA
LAGUN

Markoalde, 5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

Igeltzaritza



Iztue Irurzun

Igeltzaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Leihoak



ARGÍ PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.
Tel./Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Elektrizitatea

ARANZABAL



KOOP. E.

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15

Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)

Tel.: 943 79 17 53

Margoak

APAIN

MARGO ETA APAINKETA

Matiena, 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



RRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak

24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93



Loramendi 7, 2 behea
Tel.: 943 77 08 88

Iturgintza • Bainuak
Gasa • Berogailuak

JIVI

10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

Eraikuntzak

Berecibar

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

Txorrota

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Tapizeriak

Konrado

Aulkiak, besaulkiak, sofak,...

Eskatu aurrekontua.

Nafarroa etorbidea, 23 MI11

Tel.: 607 45 72 51 • Arrasate

Giltzak



• Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta
aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren
salmenta eta zorrozketak • Larruzko gauzak
• Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza zentroa, 1

Tel./Fax: 943 79 76 03

Gida honetan
azaldu nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91
telefonora

ALDIBI AUTOAK, S.A.



AMAITU URTEA NISSAN BAT GIDATZEN



URTE AMAIERAKO ESKAINTZA BEREZIAK



Almera



Almera Sedan



Almera Tino



Primera



Maxima

Aldibi



Zigarrola kalea, 1
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 20 02
Faxa: 943 79 65 65
e-maila: aldibi@nortekar.com

Olaso kalea, 23
20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 74 20 37
Faxa: 943 75 35 24
e-maila: aldibelgoibar@nortekar.com

Grupo
Nortekar